

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zeintzuk dira gure bezeroak?

Gure platerak eta janariak era guztietako mahaikideei eskainita daude, hau da, munduko leku guztietako pertsoneri. Oraingoan, euskal herria bisitatzeko ahalmena duen jendea soilik jan ahal izango dute, baina gure helburua nazioartean zabaldu ahal izatea eta mundu guztiak euskal herriko plater tradizionalak gozatzeko aukera izatea da.

Gure produktuak 0 kilometro dira, hau da, Euskal Herriko baratze eta etxaldeetatik ateratako janaria baino ez da egongo. Hori guztia janaria kimikoekin tratatzen diren beste herrialde batzuetatik ekartzea saihesteko egiten da, eta elikagaiak distantzia luzeetan garraiatzeak dakarren inpaktu ekologikoa minimizatzeko. Beraz, gure bezeroak jakin behar du gure jatetxeetan euskal janaria bakarrik jaten dela.

